


## Ebaluazioa. Galderak

Haizegailuaren aspetako abiadura eta azelerazio angeluarrak  $\omega_2 = 0,5 \text{ rad/s}$  eta  $\alpha_2 = 0,01 \text{ rad/s}^2$  dira, BC ardatzaren inguruan biratzen dutenean. Aldi berean motorraren blokeak eta aspek ardatz bertikal baten inguruan biratzen dute  $\omega_1 = 0,1 \text{ rad/s}$  eta  $\alpha_1 = 2 \text{ rad/s}^2$  direlarik. Irudian adierazitako posizioan P puntuko abiadura eta azelerazioa kalkulatu.



1go Irudia

1 Haizegailuaren aspetako mugimendua...

- a) translazio bat da
- b) errotazio bat da
- c) mugimendu orokor bat da
- d) mugimendu erlatibo bat da

2 Euskarriko BC zatiaren mugimendua...

- a) translazio bat da
- b) errotazio bat da
- c) mugimendu orokor bat da
- d) mugimendu erlatibo bat da

3 Arrastre mugimendua...

- a) AB ardatzaren errotazioaren ondorioz agertzen da
- b) sistema finkotik azterturiko aspen errotazioaren ondorioz agertzen da
- c) BC euskarritik azterturiko aspen errotazioaren ondorioz agertzen da
- d) aspetako errotazioaren abiadura angeluar absolutuaren ondorioz agertzen da

4 Erreferentzi sistema mugikorretik aztertuturiko aspektako mugimendu erlatiboa...

- a) traslazio bat da
- b) errotazio bat da
- c) mugimendu orokor bat da

5 C puntua...

- a) haizegailuaren ardatzekoa da
- b) aspektakoa da
- c) bi sólidoetakoa da

6 P puntuaren arrastre mugimenduaren ibilbidea

- a) XY planoan zirkularra da
- b) ZY planoan zirkularra da
- c) eta C puntuko ibilbidea berdínak dira
- d) espaziala da

7 P puntuaren mugimendu absolutuaren ibilbidea

- a) XY planoan zirkularra da
- b) ZY planoan zirkularra da
- c) espiral itxurazkoa da
- d) espaziala da



## Ebaluazioa. Erantzun zuzenak

1 ➤ Haizegailuaren aspetako mugimendua...

c) mugimendu orokor bat da  $\rightarrow$  bi biraketen gainezarpena

2 ➤ Euskarriko BC zatiaren mugimendua...

b) errotazio bat da  $\rightarrow$  AB ardatzaren inguruan biratzen du

3 ➤ Arrastreko mugimendua...

a) AB ardatzaren errotazioaren ondorioz agertzen da

4 ➤ Erreferentzi sistema mugikorretik azterturiko aspetako mugimendu erlatiboa

b) errotazio bat da  $\rightarrow$  sistema mugikorretik ikusita, hau da ardatzean kokaturiko behatzaile batentzat, aspek ardatz finko baten inguruan biratzen dute

5 ➤ C puntua...

c) bi solidoetakoa da  $\rightarrow$  ardatza eta aspen arteko lotura da

6 ➤ P puntuaren arrastreko mugimenduaren ibilbidea

c) eta C puntuko ibilbidea berdina dira  $\rightarrow$  arrastreko mugimendua, C eta P puntuak AB biraketa ardatzetik distantzia berdina daude eta beraz arrastrezko abiadura berdina dute.

7 ➤ P puntuaren mugimendu absolutuaren ibilbidea

d) espaziala da  $\rightarrow$  bi ibilbide zirkularren gainezarpen bat da, bata XZ planoan eta bestea YZ planoan.

